

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Larreako UE-12 urbanizazio proiektuaren behin betiko onarpena

Alkate-Udalburuak, 2025eko apirilaren 15eko 233 erabakiaren bidez, honako hau onartu zuen:

Lehenengoa. Behin-betiko onartzea Larrea herriko U. E. 12 egikaritze-unitatearen urbanizazio-proiektua, J. I. G. de H. eta M^a. C. L. de S. sustatua eta Arquis, SLP merkataritza-etxeak arkitektoak idatzia, baldintza hauen arabera:

Obrak Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emandako baimenaren baldintzen arabera egingo dira.

Obra hasi aurretik, zuinketa-akta formalizatu beharko da dagokion udal-teknikariarekin, jarduketa-eremuko lerrokadurak eta sestrak, hiri-zerbitzuen sareetarako hartuneen antolaera eta baldintzak eta abar egiaztatzeko.

Obraren amaierako dokumentazioa aurkeztu beharko du, eta, bertan, honako hauek jasoko dira: kaleen behin betiko egoera, azpiegitura-sareen trazadura eta horien elementuen kokapena (hustubideak, putzuak, erregistro-kutxatilak, argiteria publikoko argiak, hiri-altzariak, etab.). Obraren amaierako dokumentazio guztiaren euskarri digitala ere jaso beharko da.

Ozaetan, 2025eko apirilaren 15ean

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA